



ARAUDIA

2015 - VIII. FUTBOL ZAZPI TXAPELKETA

1. Jokoan, atezaina eta sei jokalaria egongo dira.
2. Partidu aurretik beroketak egin nahi dituzten taldeek, berdegunetik kanpo egingo dituzte, FUTBOL 11ko ateen atzealdean edo futbitoko zelaian.
3. Partiduren batera talde bat ez bada agertzen, edo gutxienez bost taldekide ez badira agertzen, talde horri partidua galdutzat emango zaio (3-0), 5 puntuko penalizazioa izango du eta hurrengo urteko txapelketan parte hartzea ukatuko zaio taldeari eta taldea osatzen duten jokalariei. Beste taldeak hiru puntu jasoko ditu.
4. Partidua hasi baino 15 minutu lehenago gutxienez, taldeak futbol zelaian egon behar du.
5. Partidu bakoitzak, 25 minutuko bi zati eta bost minutuko atsedena izango ditu. Ez da denbora geldituko eta luzapena epaileak erabakiko du zenbatekoa izango den.
6. Behin partidua hasita, arrazoi garrantzitsu batengatik bertan behera utzi behar bada, momentuko emaitza hartuko da kontuan. Oraindik hasi gabe badago, beste data bat aukeratuko da.
7. Nahi adina aldaketa egin daitezke partiduko, epaileari baimena eskatu gabe. Aldaketa hauek, zelai erditik egingo dira eta jokatzeko ari dena irten arte ez da bestea sartuko.
8. Partidua hasi aurretik hiru baloi emango zaizkio talde bakoitzari beroketak egin eta partidua joka dezan. Partidu amaieran talde bakoitzak hiru baloi horiek itzuliko ditu.
9. Atezainak, ezin izango du baloia 5 segundo baino gehiago eskuartean eduki.
10. Atezainak hankarekin ateratzen duenean (ateko sakeak edo baloia lurrean dagoenean izan ezik), baloia ezin izango da kontrako taldearen zelaira pasa. Hau gertatuko balitz, kontrako taldeak zelai erditik falta aterako luke.
11. Area kanpoan egindako falta jaurtiketa guztiak zuzenak izango dira.
12. Atezainak ateko sakea egiten duenean, bere taldeko jokalaria areaz kanpo jaso beharko du baloia. Honela ez balitz, sakea errepikatu beharko litzateke.
13. Hesia, zazpi metrotara jarriko da.
14. Jokoan dauden bi taldeek ekipamendu berdina edo antzerakoa badute, kanpoan jokatzeko duen taldeak jarriko du petoa.
15. **EPAILEAK**
 - a. Ligaxkako eta kanporaketetako partiduetako epaileak, taldeetako parte hartzaileak izango dira. Taldeko kide bat edo taldeak izendatutako pertsona bat izan daiteke

epailea. Epailea eta marrazainak azaltzen ez diren kasuetan, partiduko epailea izatea zegokion taldea zigortua izango da 5 puntu gutxiagorekin.

- b. Epaileaz gain, talde bakoitzak bi marrazain izango ditu. Bilera egunean jakinaraziko da zein partiduetako epaile izango den talde bakoitza.
- c. Salbuespena: atzeratu/aurreratutako partiduen kasuan partido horretako epailea izatea zegokion taldeak izango du epaile izateko ardura. Baina, data/ordu aldaketak eragozpenak sortzen baditu, antolakuntzari jakinarazi beharko dio eta irtenbiderik egokiena bilatuko da.

16. TXARTELAK

- a. Futbol 11n bezala izango dira, baina balioa galduko dute partidua amaitzean.
- b. Jokalari batek txartel gorria ikusten badu, ezin izango du partido horretan jokatzeko jarraitu, baina txartela ikusi eta bost minututara beste taldekide bat aterako da jokatzera.
- c. Taldea 4 pertsonekin geratzen bada, partidua bertan behera geratuko da eta emaitza 3-0 izango da. Momentuko emaitza 3-0 baino hobea bada, hau mantenduko da.
- d. Jokalari batek 2 txartel gorri zuzen ikusten baditu, ez du partido gehiago jokatuko.

17. PUNTUAKETA

- a. Irabazleak hiru puntu jasoko ditu.
- b. Berdinketa kasuan, talde bakoitzak bina puntu jasoko ditu.
- c. Galtzaileak puntu bakarra jasoko du.

18. PARTIDUETAKO BERDINKETA KASUETAN

- a. Ligaxkan, ez da luzapena egongo.
- b. Hurrengo fasean, berdinketa kasuan, luzapena egongo da. Bost minutuko bi zati jokatuko dira eta oraindik ere berdinketa egonez gero penaltiak jaurtiko dira.
- c. Finalean eta hirugarren eta laugarren postua jokoan dagoen partiduan, 30 minutuko bi zati jokatuko dira. Berdinketa kasuan luzapena egongo da. Bost minutuko bi zati jokatuko dira eta oraindik berdinketa egonez gero penaltiak jaurtiko dira.



d. Azken bi kasuetan, bost penalti jaurtiko dira. Berdinketa kasuan, talde bakoitzak penalti bat gehiago jaurtiko du, talde batek penaltia huts egin arte.

19. Hurrengo fasera, talde bakoitzeko lehenengo bi sailkatuak pasako dira.

20. TALDEEN SAILKAPENA

- a. Talde bakoitzak lortutako puntuak hartuko dira kontuan.
- b. Berdinketa kasuan, golaberax partikularra hartuko da kontuan.
- c. Oraindik ere berdinketa badago, golaberax orokorra hartuko da kontuan.
- d. Oraindik ere berdinketa badago, aldeko gol kopurua hartuko da kontuan.

21. Gainerako araudia, FUTBOL 11an erabiltzen denaren berdina izango da.

22. Bilera honetan adieraziko dira lehen faseko ordutegi aldaketak eta 2.fasean egon daitezkeen egutegi arazoak.

23. Izena eman ez duenak ezin izango du jokatu. Txapelketa hasi aurretik izena eman duen jokalaria batek jokatzetik izango ez balu, bere partez beste batek jokatzea izango du.

24. Txapelketako instalazioetan eragindako edozein kalte, kaltea eragin duen pertsonaren ardurakoa izango da.

25. Antolatzaileek eta epaileek hartutako erabaki guztiak mugiezinak izango dira.

26. Arautegian agertzen ez denaz, antolatzaileak eta epaileak arduratuko dira.

27. Antolatzaileak onartzeko eskubidea erreserbatua dute, baita txapelketaren garapena oztopatu edo arauak hausten dituzten taldeak edo partaideak txapelketatik kanpo uzteko eskubidea ere.

28. Antolatzaileek ez dute txapelketan gertatutako lesio, gaixotasun eta lapurreten gaineko erantzukizunik izango. Dena den, partiduetan Gurutze Gorriko anbulantzia eta botikin bat egongo da.

29. Txapelketa honetan parte hartzen duten talde guztiek, araudi hau onartu beharko dute.

LEGAIPKO
GAZTEAK K.E.